

TOKI ADMINISTRAZIOA

3

ADMINISTRACIÓN LOCAL

DONOSTIAKO UDALA

Pertsonen Kudeaketa

Donostiako Udaleko erdi mailako teknikari (hizkuntza normalizatzailea) zazpi (7) plaza behin betiko betetzeko deialdia.

Gobernantzako Zinegotzi ordezkariak, 2021eko irailaren 21ean honako hau ebatzi du:

«Goian aipatutako deialdiaren akats zuzenketak eta erreklamazioak aurkezteko epea amaitu ondoren, Gobernantzako Zinegotzi ordezkariak, Tokiko Gobernu Batzordeak 2019ko ekainaren 21ean emandako eta 2021eko maiatzaren 4an aldatutako eskumenak erabiliz, honako hau

EBATZI DU

Lehenengoa. Izangai onartuen eta ez onartuen behin-behineko zerrenda behin betikoa egitea, Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN, 127. zk., 2021eko uztailaren 7an argitaratua.

Bigarrena. Dei egitea, epaimahai kalifikatzailearen proposamenez, deialdian onartuak izan diren izangaiei Oposizio-faseko lehen ariketaren A) atala (gai zerrenda orokorra) egitera. Ariketaren eguna, ordua eta lekua honako hauek dira:

Eguna: 2021eko abenduaren 17a.

Ordua: 10:00.

Tokia: Kursaal Elkargunea (Zurriola Hiribidea 1, Donostia).

Barne sustapeneko txandan parte hartzen duten izangaiek salbuetsita daude ariketa hori egitetik.

Izangaiek identifikazio agiria eraman beharko dute azterketa egunean: NANA, pasaportea edo gida baimena.»

Behin betiko baztertutako izangaiek berraztertze errekurtsioa aurkeztu diezaioke ebaizpena hartu duen organoari berari, hila-bete joan baino lehen, edota zuzenean Administrazioarekiko Auzietarako Donostiako Epaitegira jo eta han aurkeztu errekurtsioa, bi hilabete baino lehen. Esandako epeak iragarki hau Gipuzkoako ALDIZKARI OFIZIALEAN argitaratu eta hurrengo egunetik hasiko dira.

Donostia, 2021eko irailaren 21a.—Maribel Íñiguez Azurmendi, Pertsonak Kudeatzeko zuzendaria. (6162)

AYUNTAMIENTO DE SAN SEBASTIÁN

Gestión de Personas

Convocatoria para la provisión definitiva de siete (7) plazas de técnico/a medio/a (normalizador/a lingüístico/a) del Ayuntamiento de San Sebastián.

El Concejal delegado de Gobernanza, con fecha 21 de septiembre de 2021, ha resuelto lo siguiente:

«Expirado el plazo para subsanar los defectos u omisiones y formular reclamaciones de la convocatoria arriba referenciada, el Concejal Delegado de Gobernanza, en uso de las atribuciones que le están conferidas por la Junta de Gobierno Local de fecha 21 de junio de 2019 y modificadas con fecha 4 de mayo de 2021,

RESUELVE

Primero. Elevar a definitiva la lista provisional de personas admitidas y excluidas, publicada en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa n.º 127 de 7 de julio de 2021.

Segundo. Convocar, a propuesta del tribunal calificador, a las personas aspirantes admitidas en la convocatoria a la realización del apartado A) (temario general) del primer ejercicio de la fase de oposición, que se realizará:

Día: 17 de diciembre de 2021.

Hora: 10:00.

Lugar: Centro Kursaal (Av. Zurriola, 1, San Sebastián).

Las personas aspirantes que participan por el turno de promoción interna se encuentran exentas de realizar este ejercicio.

Las personas aspirantes deberán acudir a la realización de las pruebas previstas del DNI, pasaporte o carné de conducir.»

Los/as aspirantes definitivamente excluidos/as podrán interponer recurso de reposición ante el mismo órgano que dictó la resolución en el plazo de un mes, o impugnarla directamente, en el plazo de dos meses, ante el Juzgado de lo Contencioso-Administrativo de San Sebastián. Los plazos señalados se computarán a partir del día siguiente al de la publicación del presente anuncio en el BOLETÍN OFICIAL de Gipuzkoa.

San Sebastián, a 21 de septiembre de 2021.—La directora de Gestión de Personas, Maribel Íñiguez Azurmendi. (6162)